

# Familien gastua igo egin da zertxobait, azken sei urteetan lehen aldiz

**ETXE BAKOITZAK, BATEZ BESTE,  
27.000 EURO GASTATU ZITUEN 2014. URTEAN,  
ETA %59A ETXEBIZITZA, ELIKAGAIAK  
ETA GARRAIOA ORDAINTZERA BIDERATU ZUEN**

- Krisi ekonomiko hau konplexua eta luzea izaten ari da, baina, dirudenez, familiak hasi dira berriz ere arnasa pixka bat hartzen eta kontsumoa zertxobait suspertzen. Hobekuntza hori, dena den, oso arina da eta arazoak ez dira desagertu, ezta gutxiago ere. Izan ere, etxeetako diru sarrerek jaisten jarraitzen dute, eta, ondorioz, benetan zaila da etxeko aurrekontuarekin hilabete bukaerara heltzea.

Beste behin, EROSKI CONSUMERek jakin egin nahi izan du nolakoak diren Espainiako Estatuko familien aurrekontuak eta zer-nolako bilakaera izan duten 2006. urteaz geroztik (urte hartan, Espainiako ekonomia artean ez zegoen krisian). Azterketa hori egiteko, Familia Aurrekontuen Inkestako (FAI) datu eguneratuak erabili dira eta Bizi-baldintzen Inkestakoak (BBI), biak ere Espainiako Estatistika Institutuak eginak (INE).



Lehenbizikoak (FAI) kontsumo gastuak nolakoak izan diren esaten du (urteko datuak dira), eta etxeetako bizi-baldintzen ezaugarri batzuei buruzko informazioa ere ematen du. Gutxi gorabehera, 24.000 etxeren datuak biltzen ditu.

BBIk ere urteroko maiztasuna du, eta diru sarreren banaketari eta gizarte bazterketari buruzko informazioa ematen du. Bigarren inkesta horrek 13.000 etxe ingururen eta 35.000 pertsonaren datuak biltzen ditu. ➤



## ETXE BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO GASTUA 2014AN

Etxe bakoitzeko gastua, batez beste: 27.037,74 euro



ITURRIA: Guk landua, Familia Aurrekontuen Inkestako datuak hartuta (FAI). Espainiako Estadistika Institutuak egiten du inkesta hori.

## GASTU NEURTUA

Etxe bakoitzak, batez beste, 27.038 euro gastatu zituen 2014. urtean. Familia mota batekoak baino gehiagokoak izaten dira etxeak, eta mota guztiak aintzat hartuta, honela banatzen da gastua: bikotea eta seme edo alaba bat edo gehiago dutenek gastatu dute gehien, 31.000 euro baino gehiago, eta gutxien, berriz, bakarrik bizi diren pertsonen, 20.000 euro baino gutxiago.

Autonomia erkidegoei begiratuta, hauxe da egoera: Euskal Autonomia Erkidegoko, Madrileko eta Nafarroako etxeetan, batez beste, 31.300 euro gastatu dituzte (batez besteko orokorra baino %17 gehiago da hori); beste muturrean, berriz, gasturik apalenaekin, Extremadurako eta Kanarietako etxeak ageri dira: batez beste, 23.000 euro pasatxo gastatu zituzten (batez besteko orokorra baino %15 gutxiago da hori).

## JOERA ALDAKETA

2006. urteaz geroztik, familien gastua etengabe handitu zen 2009. urtea bitarte. Urtebete lehenago iritsi zuen gailurra: Estatuko familiek, batez beste, 31.700 euro gastatu zituzten 2008an, eta geroztik ez da berriz maila horretan izan. Urte horretatik aurrera, familiak zorroztzago zaintzen hasi ziren gastuak eta kontsumoari eusten. Harik eta 2013. urtean hondoa jo zuen arte: 27.098 eurokoa izan zen, batez beste, familien urteko gastua, aspaldiko apalena.

Baina bost urtez atzera eta atzera egin ondoren, 2014. urtean berpiztu egin zen zertxobait. Dena den, hainbat ñabardura egin behar zaizkio baieztapen horri. Prezioen aldaketak kontuan hartzen badira, etxeen batez besteko gastua %0,2 gutxitu zen urte horretan 2013. urtearekin alderatuta. Baina gorabehera horiek bazterrean uzten badira, etxe bakoitzak %0,5 handitu zuen aurrekontua. Hala ere, 2006. urteaz geroztik, familien inbertsioa asko jaitsi da: hain zuzen, %10,5 prezioen gorabehera kontuan hartuta, eta %22 kontuan hartu gabe.

## Gastuen podiuma:

Familien aurrekontuan sartzen diren gastu guztiak zenbatzeko, 115 gastu mota aztertu ditugu guztira, hamabi taldetan banatuta. Euro gehien eramaten duten 20 gastu motetatik, %39 etxebizitzari lotuta daude, %18 elikagaiari eta edari ez-alkoholdunei, %14 garraioari eta %11 hotel eta kafetegiei.

Horrela, honako hauek izan dira hiru gasturik aipagarrienak: etxebizitza jabetzan hartzeari lotutako alokairuak (familiek 5.400 euro gastatu dituzte 2014. urtean), jatetxeak eta kafetegiak (2.000 euro baino gehiago) eta erregaiak eta lubrikatzaileak (ia 1.300 euro). Hauxe da zerrenda:

FAMILIEN GASTUA AZTERTU DUGU 17 AUTONOMIA ERKIDEGOTAN, BAITA ZENBATEKO ERRENTA JASOTZEN DUTEN BATEZ BESTE ETA ETXEETAN ZER-NOLAKO GABEZIA MATERIALAK DITUZTEN ERE

Azken zortzi urteetan izan den beherako joera hori etxe mota guztietan ageri da, oro har, eta guztietan jaitsi da aurrekontua, batez ere 2008. urtetik aurrera. Seme-alabarik ez duten bikoteen gastua, adibidez, %5 apaldu da urte horretatik 2014a bitarte, eta hiru haur edo gehiago dituzten bikoteena %23. 65 urte edo gehiago izan eta bakarrik bizi diren pertsonen baino ez dute handitu aurrekontua: sei urtean, %10 gehiago gastatu dute.

Era berean, autonomia erkidego guztietan murriztu da etxeen batez besteko gastua 2006. urtetik hona: %1 Errioxan eta %17 Kanarietan. Azken urtebetean, aldiz (2013tik 2014ra), handitu egin da ia bitik batean: Kanariak, Balearrak, Nafarroa, Extremadura, Asturias, Gaztela eta Leon, Katalunia eta Andaluzia. Ez da berdinduta, ordea, Aragoiko eta Madrilgo Erkidegoko etxeetan, non %3 gutxitu den batez besteko gastua (hori izan da jaitsierarik handiena).

## HIRU EUROTIK BAT, ETXEBIZITZA GASTUETAN

Eta zertan gastatzen dute dirua familiek? Aipatu ditugun 27.000 euro pasatxo horiek honako atal hauetara bideratzen dituzte, nagusiki: etxebizitza, ura, argindarra, gasa eta beste erregai batzuk. Atal horrek gastu guztiaren %32 hartzen du (8.700 euro baino gehiago urtean). Bigarren lekuan, elikagaiak eta edari ez-alkoholdunak ageri dira: aurrekontuaren %15 hartzen dute (4.000 euro pasatxo). Eta gastu gehien eragiten duen hirugarren atala garraioarena da: %12koa da hain zuzen (3.200 euro baino gehiago).

Hortik aurrera, gainerako atalak %1 eta %9 artean dabilta: hotelak, kafeak eta jatetxeak; aisialdia, ikuskizunak eta kultura; arropa eta oinetakoak; etxeko altzariak eta tresneria eta etxea zaintzeko beste gastu ohiko batzuk; osasuna; komunikazioak, edari alkoholdunak eta tabakoa; irakaskuntza eta beste ondasun eta zerbitzu batzuk.

Oro har, zortzi urtean murriztu egin da aztertutako atal bakoitzean egindako gastua, baina ez erritmo berean guztietan. Adibidez, etxerako altzarietan eta tresnerian egindako gastua %38 jaitsi da eta arropan eta oinetakoetan egindakoa %33; elikadurakoa, aldiz,

%6 baino ez da apaldu. Baina dena ez da jaitsi. Hiru ataletan handitu egin da gastua 2006. urtetik 2014ra: irakaskuntza (%33), etxebizitza eta hornidurak (%16) eta osasuna (%9).

## ZENBAT ETA FAMILIA HANDIAGOA, HAINBAT ETA GASTU HANDIAGOA

Oro har, bi haur edo gehiago dituzten familiek gastatzen dute diru gehien aurrekontu osoa osatzen duten ataletako bakoitzean. Gutxien, berriz, bakarrik bizi diren pertsonen.

Etxebizitzan eta hornigaietan, ia %37ko aldea dago etxe mota baten eta bestearen artean. Gainerako ataletan, ordea, askoz alde handiagoak ageri dira: osasunean bi aldiz handiagoak dira gastuak, garraioan zortzi aldiz handiagoak eta irakaskuntzan ehun aldiz handiagoak.

Osasunean, adibidez, 65 urte baino gutxiago izan eta bakarrik bizi diren pertsonen, batez beste, 526 euro gastatu dute 2014. urtean, eta hiru haur edo gehiago dituzten bikoteek 1.168 euro. Garraioan, pertsona bakarreko familien gastua (65 urte edo gehiagokoak) 587 eurokoa izan da, eta bi seme-alaba dituzten bikoteena 4.823 eurokoa. Irakaskuntzan, berriz, 10 euro baino ez dute gastatu 65 urtetik gora izan eta bakarrik bizi diren pertsonen, eta hiru haur edo gehiago dituzten bikoteek, aldiz, 1.235 euro.

Autonomia erkidegoei erreparatuta, eta aurrekontuan pisu gehien duten hiru atalak hartuta, EAEko familiek dira etxean eta hornigaietan gehien gastatu dutenak, eta Kanarietakoak gutxien. Alde handi samarra ageri da bi mutur horien artean, %64koa hain zuzen: EAE 11.100 euro baino gehiago eraman ditu atal horrek, eta Kanarietan 6.800 euro.

Elikaduran, Galiziako eta EAEko etxeek %27 gehiago gastatu dute Extremadurakoekin baino: 4.400 euro baino gehiago lehenbizikoek eta 3.500 euro bigarrenen. Azkenik, garraioan, Madrilgo Erkidegoko familia izan da gasturik handiena, eta Aragoikoena txikiena (%41eko aldea dago bien artean): 3.700 euro gastatu dute Madrilgoekin eta 2.680 euro Aragoikoekin.

## etxebizitza, elikadura eta garraioa

1. Etxebizitza jabetzan hartzeari lotutako alokairuak: **5.446,16 euro**
2. Jatetxea eta kafetegiak: **2.075,27 euro**
3. Erregaiak eta lubrikatzaileak: **1.296,29 euro**
4. Arropa: **986,67 euro**
5. Haragia: **982,67 euro**
6. Alokairu errealek (etxebizitza nagusia): **762,76 euro**
7. Telefono, telegrafo eta fax zerbitzuak: **733,11 euro**
8. Ibilgailuak: **729,56 euro**
9. Elektrizitatea: **701,44 euro**
10. Ogia eta zerealak: **621,60 euro**
11. Mantentze eta konponketa lanak: **610,38 euro**
12. Esnea, gazta eta arrautzak: **501,87 euro**
13. Arraina: **473,91 euro**
14. Garraioari lotutako aseguruak: **441,64 euro**
15. Etxeari, garajeei eta trastelekuari lotutako zerbitzuak (eskailera garbitzea, komunitate gastuak, argiteria, atezainak, lorategia, igogailuak mantentzea, etab.): **436,76 euro**
16. Dentisten zerbitzuak: **427,01 euro**
17. Medikuntzako produktuak, tresnak eta ekipak: **400,13 euro**
18. Zainketa pertsonaletarako tresnak, gauzak eta produktuak: **398,96 euro**
19. Barazkiak, patata eta beste tuberkulu batzuk sartuta: **386,22 euro**
20. Frutak: **373,55 euro**



**DIRU SARRERAK BEHERANTZ**

Etxe bakoitzean, batez beste, 26.154 euro sartu ziren 2013. urtean, aurreko urtean baino %2 gutxiago (batez besteko errenta 26.700 eurokoa izan zen orduan) eta 2006an baino %13 gutxiago (batez beste, 30.000 euro iristen ziren etxe bakoitzera).

Ildo horretan, diru sarrera handienak izan dituzten familiek egitura hau izan dute: bi heldu eta haien mende dagoen haur bat edo gehiago (18 urtetik beherakoak eta 18 eta 24 urte artekoak, ekonomikoki jarduerarik gabeak direnak eta gurasoetako bat, gutxienez, etxeko kide dutenak). Guztira, 31.200 euroko diru sarrerak izan dituzte; beste muturrean, pertsona bakarreko familiak ageri dira, 14.500 euroko diru sarrerekin. Batez besteko errenta orokorra bezala, diru sarrera horiek ere jaitsi egin dira etxe mota guztietan 2008. urtetik aurrera; zehazki, %7 eta %10 artean.

Autonomia erkidegoak aintzat hartuta, EAEko etxeek izan dituzte diru sarrera handienak: 34.240 eurokoak. Txikienak, berriz, Extremadurakoek: 19.300 euro pasatxokoak. Bien arteko aldea %77koa da.

Urtebetean (2012 eta 2013 atean), Extremadurako eta Murtziako etxeetan apaldu da gehien batez besteko errenta. Bestalde, 2008 eta 2013 bitartean, jaitsiera handiagoa izan zuten Kantabriako familien diru sarrerek (%23koa) eta, berriz ere, Murtziako familienek (%20koa).

**HILABETE BUKAERARA HELTZEKO ZAILTASUNAK**

Hiru familietatik bik onartu dutenez, 2014. urtean kostata iristen ziren hilabete bukaerara, eta %37k esan dute asko kostata eta zailtasun handiekin iristen zirela. Arazo gehien izan duen etxe mota heldu bakar batek eta haren mendeko haur batek edo gehiagok osatzen dutena izan da (%81ek aitortu dituzte zailtasunak).



Autonomia erkidegoka, iaz Kanarietako eta Andaluziako etxeek izan zuten neke gehien ildo horretan (%80 inguruk onartu dute kostata egin zitzaiela hilabete bukaerara heltzea); zailtasun gutxien, berriz, Nafarroako familiek azaldu dute (%35ek).

Zortzi urtean, egoera ez da gehiegi aldatu. 2006. urtean, etxeen %61an zailtasunak zizutela onartzen zuten. Eta orduan ere, heldu batek eta haien mende zegoen haur batek edo gehiagok osatutako familiek zuten arazo gehien.

Oso deigarria da azken urtebetean 10 puntu handitu izana heldu batek eta haren mendeko haur batek edo gehiagok osatutako familien artean hilabete bukaerara heltzeko zailtasunak dituztenen ehunekoa: %48 ziren 2013an eta %58 izan dira 2014an.

**BIDAIARIK ETA USTEKABEKORIK GABE**

Kontsumoa zertxobait suspertu den arren, familiek oraindik ere murrizketa handiak egiten dituzte. Adibidez, etxeen %45 ez daitezke oporretan joan urtean astebetez ere (2006an baino %6 gehiago da hori), eta beste %42k ez dute gaitasunik ustekabeko gastuei aurre egiteko (orain dela 8 urte baino %9 gehiago da hori). Horretaz gain, %7 inguruk ez dute modurik ordenagailu pertsonal bat izateko (2006an baino %4 gutxiago) edo ibilgailu bat izateko (ia ez da aldatu 8 urtean).


Baina badira gabezia larriagoak ere: %11k ez dezakete etxea tenperatura egokian eduki (ez da aldatu 2006arekin alderatuta), beste %10ek atzeratu egin behar izan dituzte etxebizitza nagusiarekin zerikusia duten ordainketak azken 12 hilabeteetan (hipoteka edo alokairua, gasa, etxejabe elkarteko faktura...; ehuneko %5etik %10era igo da zortzi urtean), eta %3k ez dezakete haragia, oilaskoa edo arraina jan astean bitan gutxienez (ehuneko %1 murriztu da).

Familia moten arabera, heldu batek eta haren mende dagoen haur batek edo gehiagok osatzen dutenak nabarmentzen dira beste guztien gainetik. Horien arteko %62 ez daitezke oporretan joan eta ez dute gaitasunik ustekabeko gastuei aurre egiteko. Beste %22k atzeratu egin behar izan dituzte etxebizitza nagusiarekin zerikusia duten ordainketak azken 12 hilabeteetan, %16k ez dute modurik ibilgailu bat izateko eta %13k ordenagailu pertsonal bat ere ez. Horretaz gain, ia %7k ez dezakete haragia, oilaskoa edo arraina jan astean bitan gutxienez.

[www.consumer.es](http://www.consumer.es)



**ESPAINIAKO ESTATUKO FAMILIEN ESTUALDIAK**



- Ez daitezke oporretan joan urtebetean astebetez gutxienez
- Ez dute gaitasunik ustekabeko gastuei aurre egiteko
- Ez dezakete etxea tenperatura egokian eduki
- Atzeratu egin behar izan dituzte etxebizitza nagusiarekin zerikusia duten ordainketak azken 12 hilabeteetan (hipoteka edo alokairua, gasa, etxejabe elkarteko faktura...)
- Ez dute modurik ordenagailu pertsonal bat edukitzeke
- Ez dute modurik ibilgailu bat edukitzeke
- Ez dezakete haragia, oilaskoa edo arraina jan astean bitan gutxienez

■ 2014. URTEA ■ 2006. URTEA

\*ITURRIA: Guk landua, Bizi-baldintzen Inkestako datuak hartuta (BBI) [AURREKO TAULETAN: Familia Aurrekontuen Inkestako datuak hartuta (FAI)]. Espainiako Estadistika Institutuak egiten du inkesta hori.